

**GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL KONTSEILUA (GZEK)****2014-10-22ko OSOKO BILKURAREN AKTA**

Gasteizen egina (Seminarioa)
Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 67

DEITZAILEA:

Presidentea: Juan María Aburto Rique jauna.- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua.

BERTARATUAK**A) KIDE BAKARREKO ORGANOK:**

- **LEHENDAKARIORDEA. Iñigo Pombo Ortiz de Artiñano jauna.**- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea, **jarduneko presidentea baita**, presidentea ez dagoelako.
- **IDAZKARIA. Angel M^a Manero González jauna.**- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzako Gizarte Gaien Arloko arduraduna.

B) KIDEA

Lide Amilibia Bergaretxe andrea.- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Gizarte Zerbitzuen zuzendaria.

José Luis Madrazo Juanes jauna.- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako zuzendaria.

Xabier Iñigo Ochandiano Martínez jauna.- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako zuzendaria.

Xabier Losantos Omar jauna.- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendaria.

Ignacio Basañez Alfonso jauna.- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Etxebizitzako zuzendaria.

Nerea Antia Vinós andrea.- Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko aholkularia.

José Antonio De la Rica Giménez jauna.- Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko EAEko Koordinatzaile Soziosanitarioa.

Mikel Agirregabiria Agirre jauna.- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko (Hezkuntza Berrikuntzako Zuzendaritza) Hezkuntza Berrikuntzako Zerbitzuaren burua.

Cristina Madinabeitia Olariaga andrea.- Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Turismo Zuzendaritzako teknikaria.

Ana M^a Reka Esparza andrea.- Eusko Jaurlaritzako Segurtasun sailburuaren Kabineteko zuzendaria.

Ana Alberdi Zubia andrea.- EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundeko idazkari nagusia.

Paloma Aranceta Arilla andrea.- Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria.

Sergio Murillo Corzo jauna.- Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzako Pertsonen Autonomia Sustatzeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko zuzendaria.



María del Río Pereda andrea.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Plangintzako, Inbertsioetako eta Prestazio Ekonomikoetako zuzendari nagusia.

Ibon Uribe Elorrieta jauna.- EUDEL (Galdakaoko alkatea).

Emilia Málaga Pérez andrea.- UGT Euskadi.

Felisa Piedra Gao andrea.- CCOO Euskadi.

Gotzon Villaño Murga jauna.- EAEko Gizarte Langintzako Elkargo Ofizialak.

Karmele Acedo Gil andrea. (Servicios Sociales Integrados S. Coop.elkartea).Euskadiko Lan Elkartuko Kooperatiben Konfederazioko ordezkaria.

Amaia López Iriondo andrea.- CONFEBASK (Euskal Enpresarien Konfederakuntza).

Manu Moreno Gil jauna. (Euskadiko EAPN).- Gizarteratzeko Batzorde Iraunkorreko ordezkaria.

Miguel Angel Ruiz Díez jauna. (Arabako Hiesaren Kontrako Batzordea).- Droga-mendekotasunaren esparruko elkarteen ordezkaria.

Natalia Díez-Caballero Alonso andrea. (HIRUKIDE-Euskadiko Kide Ugariko Familien Elkarte).- Familiaren Batzorde Iraunkor Sektorialeko ordezkaria.

Josu Gago Palacios jauna (Agintzari Koop E.).- Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektorialeko ordezkaria.

Ainhoa Pérez González andrea. (Harresiak Apurtuz koordinakundea).- Etorkinei laguntza emateko GKE-en Koordinakundearen ordezkaria.

Consuelo Ordejón Caballero andrea (Gizarterako Elkarte).- EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundeko Aholku Batzordearen ordezkaria.

Igor Navarro Brea jauna. (ELKARTEAN konfederazioa).- EAEko Desgaitasun Fisikoren Bat Duten Pertsonen Koordinadora Konfederazioaren ordezkaria.

Pablo González Gutierrez jauna. (FEVAS federazioa).- Desgaitasun intelektuala duten pertsonen aldeko Elkarteen Euskal Federazioaren ordezkaria.

M^a José Cano Mesías andrea. (FEDEAFES federazioa).- Gaixotasun Psikikoa Duten Pertsonen Eta Senideen Elkarteen Euskadiko Federazioaren ordezkaria.

Inmaculada Mujika Flores andrea (Aldarte Elkarte).- Gay, lesbiana eta transexualen erakundeen ordezkaria.

José Manuel Odriozola Azurmendi jauna. (EUSKO FEDERPEN federazioa).- Euskadiko Pentsionisten eta Erretiratuen Elkarte Probintzialen Lurralde Federazioaren ordezkaria.

EZIN ETORRIA ADIERAZI DUTE

LEHENDAKARIA. Juan María Aburto Rique jaunak.- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak.

Imanol Agote Alberro jaunak.- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Kultura Ondarearen zuzendariak.

Mónica Hernando Porres andreak.- Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariak.

Izaskun Uriagereka Legarreta andreak.- EUDEL (Mungiako alkatea).

Idoia Intxaurbe Fernández andreak.- ELA EUSKAL SINDIKATUA.

Aitor González Angulo jaunak. (ONCE Euskadi).- EAEn zentzumeneko desgaitasunen alorrean lan egiten duten elkarteen ordezkariak.



ETORRI EZ DIREN KIDIAK

Batzordekide bat, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Saileko Ekonomiaren eta Plangintza Ekonomikoaren arloan eskuduna den Sailaren ordezkaria.

Bi batzordekide, EUDELen (Euskadiko Udalen Elkartea) ordezkari gisa.

Kide bat, Eusko Legebiltzarraren (Lan eta Gizarte Ekintzako Batzordea) ordezkari gisa.

Kide bat, LAB sindikatuaren ordezkari.

Kide bat, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Hezitzaileen Elkargo Ofizialak ordezkari.

Hiru kide, Enpresa-organoak ordezkatzeko (CONFEBASK).

Kide bat, Euskadiko Gazteriaren Kontseilua ordezkatzeko.

KONTSEILUAK GONBIDATUTAKO BESTELAKO ORDEZKARI BATZUK (KIDIAK EZ DIRENAK):

Luis Pérez Fernández jauna.- Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako Psikologoen Elkargoetako ordezkaria.

Juan Luis Herrero jauna.- Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialeko ordezkaria.

Pascual Borja Borja jauna.- (Gao Lacho Drom Elkartea).- Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseiluaren ordezkaria.

Noemi Ostolaza Arcauz andrea.- Eusko Jaurlaritzako Gizarte Politiketako Sailburuordetzaren aholkularia.

Emilio Sola Ballojera jauna.- Eusko Jaurlaritzako Gizarte Politiketako Sailburuordetzaren aholkularia.

.....

LANDUTAKO GAIK ETA HARTUTAKO ERABAKIAK

Behar adinako quoruma egonda, osoko bilkura lehenengo deialdian baliozki eratu da, idatziz lehenago bidalitako deialdian adierazitako egunean eta lekuan. Saioa 2014ko urriaren 22ko 10:05ean hasi da presidentziak zehaztutako gai-zerrenda honekin:

1. Aurreko bileraren (2014-01-27) akta irakurtzea eta onartzea.
2. Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Lege-proiektuari buruzko nahitaezko txostena ematea.
3. Gizarte Zerbitzuen Zorroari eta Plan Estrategikoari buruzko Dekretuaren egoera.
4. Gizarte Zerbitzuei buruzko Urteko Txostena egiteko beste eredu baten proposamena.
5. Galde-eskeak.

.....

Jarduneko presidenteak, Iñigo Pombo jaunak, ongietorria egin die bertaratuei, bereziki kontseilura lehen aldiz bildu direnei, eta, aldi berean, presidentearen eta kontseiluko beste kide batzuen bertaratu ezina desenkusatu du, gaurko osoko bilkuran izatea ezinezkoa zaiela jakinarazi baitute. Jarraian, gai-zerrendako lehenengo puntuari ekin dio:

1. puntua.- Aurreko bilerako (2014-01-27) akta onestea.

Bidalitako behin-behineko txostenari oharririk egin ez zaionez, aho batez onartu da 2014ko urtarrilaren 27an egindako aurreko Osoko Bilkuraren akta.

2. puntua.- Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Lege-proiektuari buruzko nahitaezko txostena ematea.

- **Gizarte Politiketako sailburuordeak** jakinarazi du bere Saila ari dela proiektu hau bultzatzen, Sailak berak landutako testu batekin jarri zela martxan egitasmoa eta *Elkarrizketa Zibileko Mahaian* onartu zela. Horren ondoren, proiektua onesteko aurreikusitako administrazio-izapideak abiatu ziren: *Hasteko Agindua, Aldez aurreko onarpenaren Agindua, Txostenak: Sailarena berarena (Juridikoa), Hizkuntza Normalizazioari buruzkoa, Emakunderena, etab*). Era berean, testua Probintziako Administrazioei (Aldundiak eta Udalak-EUDEL) igorri zitzairen eta EHAAan argitaratu zen, herritarrek proiektuaren berri jakin zezaten, zegozkion ekarpenak eta/edo alegazioak egiteko.

Orain artean, hiru diputazioen, EUDELen eta EHLABE, ELKARTEAN eta LARES erakundeen alegazioak jaso dira. Alegazioak aztertu ondoren, erantzuna eman zaie, zenbaitetan proposatutakoa onartzeko, eta beste batzuetan, zergatik ez diren onartu esplikatzeko. Asmoa da, aurreikusitako epeak betez gero, gobernuari dagokion prozesua aurtengo urtea amaitu baino lehen burutzea, proiektua Gobernu Kontseiluari aurkeztuta, ondoren Eusko Legebiltzarrean izapidetzeko.

Gaurko saioan, erabiliko den testua ez da izango deialdiarekin batera igorri zena, gerozko beste bat baizik (mahai gainean utzitakoa). Egindako aldaketak jasotzen dira testu horretan eta gorri adierazi dira, hobeto bereizteko. Hain zuzen, *Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoan*, herenegun, urriaren 20an, eginiko bileran onartu zituzten erakundeek aldaketa horiek.

Laburbilduz, Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoan ordezkaturako Administrazioek, alde batetik, estilo aldetiko zenbait kontu argitzea eskatu zuten, eta, bestetik, garrantzi handiagoko zenbait gai zehaztea; batez ere, 12/2008 Legeak administrazioei ematen dien gizarte-zerbitzuen ardura aintzat harturik, administrazio publiko horien eginkizuna argiago azaltzea; eta, orobat, "kasuko koordinatzailearen" eginkizuna ere argiago zehaztea (Legearen 19. artikulua araberak, kudeaketa publikoko zerbitzu publiko horietan Gizarte Zerbitzuetako Euskal Sistemako profesional batek du horren ardura).

Horrenbestez, Kontseiluak nahitaez txostena egin behar duenez -ez du zertan aldekoa edo kontrakoa izan-, kasu honetan komeni dena da bertaratutako pertsonak askatasunez adierazitako iritzirik bakoitza txostenean jasotzea.

Horrenbestez, sailburuordeak testuan sartutako "*aldaketa apurrak*" azaldu ditu, gorri adierazitakoak. Aldaketa horiek batez ere III. Kapituluko 11., 14. eta 17. artikuluetan eta IV. Kapituluko 19. eta 22. artikuluetan egin dira (agiri osoa, egindako aldaketekin, **1. ERANSKINEAN** atxiki da).

Azkenik, bai EHLABEK bai AFak adierazitako gai bat aipatu du sailburuordeak, enplegu-zentro bereziei eta zentro okupazionaleri loturikoa. Lege honetan formulatutako "*Hirugarren Sektore Sozialaren definizioan sartzen ez diren erakunde juridikoak*" dira zentro horiek. Araban, zehazki, INDESA 2010 S.L. enplegu-zentro berezi bat da, %100 publikoa (AFaren enpresa da). Bizkaian, USOA Tailerra ere Barakaldoko Udalaren enpresa publikoa da. Eta Ranzari eta Galarreta Tailerrak ere juridikoki enpresa publikoak dira. Horrenbestez, Administrazio publikoaren erakundeak izanik, ezin dira hirugarren sektore edo irabazi asmorik gabeko sektore izan (AFak kezka zuen laguntzen deialdi batean kanpoan gera zitezkeela, hirugarren sektore ez izateagatik). Ikusiko da badagoen beste aukerarik arazoa konpontzeko, baina hasiera batean mantendu egin da hirugarren sektore ez direla berresten duen irizpide hori.



Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoaren bileraren ondoren eginiko aldaketei buruzko azalpenak eman ondoren, GZEK-ko kideek hartu dute hitza:

- **Gotzon Villaño** jaunak, EAEko Gizarte Langintzako Elkargo Ofizialen ordezkariak, eskertu egin ditu aldaketak, eta aurreratu du hori zela gaurko bilerara ekartzeko asmoa zuen proposamenetako bat, zehazki 11. artikulua c) letra aldatzekoa (erreferentearen eta kasuko koordinazioaren figurari loturiko eginkizunak aipatzen dira idatz-zati horretan). Elkargo horien iritziz, komenigarria da argi uztea eginkizun hori ardura publikoa dela eta, hasiera batean, oinarriko gizarte-zerbitzuek eta/edo dagokion bigarren mailako gizarte-zerbitzuak eman behar dutela. Eta, orobat, 14. artikuluan gai bera aipatzen duen paragrafoa aldatzea proposatu du. Villaño jaunak zekartzan proposamen horiek testuan jasota daudenez, eskertu egin ditu aldaketak.

- **Amaia López** andreak, CONFEBASKEn ordezkariak, adierazi du dokumentuaren beraren idazketa zaila dela. paragrafoak, zenbaitetan, hizkuntza aldetik oso trinkoak direla eta, oro har, herritarrentzako ulertzeko zailak (13.4 artikulua aipatu du, adibide modura). Gainera, zenbaitetan, eta 23. artikulua aipatu du adibide gisa, *“lege-gorputzak, edukiak, hitzarmen batekoa dirudi eta ez lege orokorrako batekoa”* (Hirugarren Sektore Soziala ezagutzera emateko ekimenen puntua jasotzen du aipatutako artikulua horrek). Okerreko interpretazioak saihesteko, legeak denboraz kanpokoak izan behar du, eta ez ekimen bakar "bat" edo biltzar "bat" egitera mugatua. Hori dela eta, formulazio hori berrikusteko eskatu du.

- **Txema Odriozola** jaunak, FEDERPEN federazioaren ordezkariak, 7. artikuluan erantsitako paragrafoa aipatu du, eta bere iritziz zuzena dela adierazi du. Honela dio paragrafo horrek: *“...erakunde bakoitzeko gobernu-organoei dagokien erabakitze ahalmena gutxietsi gabe”*. Orobat, zuzena iruditu zaio honako aipamen hau: *“Jaurlaritzak etengabeko elkarrizketa mantenduko du”* (7.3. art.); alabaina, beste administrazio publiko batzuekin (FAK eta tokiko erakundeak, Batzar Nagusiak...) izan beharreko elkarrizketa aipatzean, egoki irizitako borondatearen esku uzten da elkarrizketa hori. Hala, parte-hartzea *“neurritz gain uzten da inoren borondatearen esku”*; eta gerta daiteke *inoiz ez borondaterik izatea eta sekula ez elkarrizketarik izatea*. Eskatu du testuan aldaketaren bat egitea, elkarrizketa "behartzeko", ez inoren borondatearen arabera, baizik eta elkarrizketarako eta lankidetzarako beharrezko arabera. Eusko Jaurlaritzari elkarrizketa mantentzeko ezartzen zaion betebeharra administrazio publiko guztiei ezarri beharko litzaieke (*“lege bat da eta legeak guztiak behartzen ditu”*).

- **Karmele Acedo** andreak, Euskadiko Lan Elkartuko Kooperatiben Konfederazioko ordezkariak, adierazi duenez, *“hutsune nabarmen bat dago arauzko testu honetan, ez baita jasotzen “ekimen sozialeko kooperatibaren” figura, Kooperatiben Legean aurreikusitakoa. Hirugarren sektorean gaude, besteak beste, Koopera Gizarte Sarea, Peñascal Kooperatiba, Servicios Sociales Integrados Elkarteak, Emaus...”*. Haien iritziz, testuak eta batez ere 2. artikulua (hirugarren sektore sozialeko partaide izango diren erakundeak aipatzen dira bertan) ez du behar beste bermatzen Lan elkartuko kooperatiben parte-hartzea.

- **Igor Navarro** jaunak, ELKARTEAN (Euskal Autonomia Erkidegoko Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Konfederazioa) erakundearen ordezkariak, harridura eta kezka azaldu du ez delako kontuan izan berak egindako ohar bakar bat ere, eta bere esanetan *“ondo arrazoituak zeuden”*. Elkarrizketa Zibileko Mahaian aurkeztu zituen ohar horiek, testua onartzerakoan.

- **Pablo Gonzalez** jaunak, FEVASeko ordezkariak (Desgaitasun intelektuala duten pertsonen aldeko Elkarteen Euskal Federazioa), adierazi du bat datorrela Legearen Zioen Azalpenean adierazitakoarekin, eta lege ona dela, herritarren parte-hartzea errazten duelako eta pertsonen alde egindako lan hori (lehendik hor zegoena) aintzat hartzen duelako. *“Legea onartzeak funtzionamendu-eredu jakin bat hartzen du aintzat eta uste dugu eredu hori ona dela: hobe da lege hau izatea ez izatea baino”*. Baina, Txema Odriozolak adierazitakoaren haritik, Gonzalezek ere berretsi du 3 artikuluk gaur egungo testuan baino betebeharr handiagoa ezarri beharko luketela.



Batetik, 8. artikuluan, "aukera izango dute sartzeko" beharrean "sartuko dituzte" jartzea proposatu du; bestetik, 14. artikuluan, "erraztuko dute" beharrean "bermatuko dute"; eta, azkenik, 16. artikuluan, "formalizatuko da" erabiltzea eta ez "aukera izango da formalizatzeko". Bere esanetan, modu horretara hobeto uztartuko lirateke testua eta Zioen Azalpenean adierazitakoa eta prozesuan zehar planteatutakoa.

- **Ibon Uribe** jaunak, Galdakaoko alkateak, arrazoitu du, hain zuzen, bere alegazioak justu kontrakoak zirela, bi arrazoiengatik. Batetik, beti saiatzen direlako erabakiak hartzerakoan tokiko erakundeen autonomia errespetatzen, "*udal bakoitzak nolabaiteko tarteak izan dezan bere erabakiak hartzeko*", eta hortik testuko "ahalko dute" esamoldea. Bestetik, kezka zutelako esparru horretan aplikatzekoa litzatekeen politika jakin bakoitza ezartzeko fase guztietan herritarren parte-hartzea exijituko ote zitzaien; hau da, prozesu horretan hartutako erabakietan partaide izan daitezkeen organismo eta erakunde guztiak prozesuaren guztian egotea eskatuko ote zitzaien ("*arte eta parte*"). Ados daude partaidetza-prozesuekin, eta uste dute agente-organo bakoitzaren (aldekoa izan zein ez) borondateari tarte bat utzi behar zaiola prozesu horietan, baina, oro har, gogoratu dute autonomia horri eustea dela Tokiko Autonomiaren Europako Gutunak ezartzen duen printzipioetako bat. Eta horregatik egin dute emendakin hori.

- **Txema Odriozola** jaunak zehaztu du ez dela beraien asmoa erakundeen autonomian eragitea, baina bai, aldiz, erakundeek, gutxien-gutxienik, beraiei entzutea.. Eta gauza bat da entzuteko betebeharra duen aholkularitza-organo bat izatea, eta gero dena delako erabakia hartzea, "*baina hartzaileak bagara eta ez badiguzue parte hartzeko aukerarik ematen...*"

- **Ana Alberdi Zubia** andreak, EMAKUNDEko idazkari nagusiak, 2. eta 4. artikulua aipatu ditu, "*desorekaren*" aipamena jasotzen duten biak, eta argitu du ondo dagoela berdintasunerako eskubidearen aipamena egitea, baina "*emakumeak ez gara talde kalteberagoa, baztertuagoa, babesgabeagoa, etab.; hau da, berdintasunaren gaiak emakume guztiei eragiten die*". Horrenbestez, berdintasunari buruzko aipamenak (pertsonek guztiek horretarako duten eskubidea egiaz erabili ahal izatea) emakume guztiei egin behar die erreferentzia, eta ez talde espezifiko batzuei. Hori dela eta, azaldutakoaren haritik, testua aldatzeko proposatu du, dagoen-dagoenean ez dagoelako ondo jasota 2. eta 4. artikuluetan.

- **Manu Moreno** jaunak, EAPN Euskadi erakundeko ordezkariak, bat egin du Pablo Gonzalezek esandakoarekin eta ontzat jo du hirugarren sektoreko erakundeak aspalditik egiten ari diren lana "*lege-esparru batean*" aitortzea. Zioen Azalpenean jasotzen da aipamen hori. Halaber, bat egin du FEVASek egindako hiru ekarpenei buruz eta planteatutako aldaketei buruz esandakoarekin, bai eta Ibon Uribe jaunak emandako erantzunarekin ere, uste baitu errespetatu egin behar dela autonomiaren printzipioa, "*baina borondate politikorako tarte bat ere badago, eta horrek kezka sortzen digu, hirugarren sektore garen aldetik, esku-hartze osoan hartu nahi dugulako parte, borondate politikoari tarte hori utzi gabe*".

- **Ibon Uribe** jaunak ulertzen ditu emandako arrazoiak, baina hausnarketa orokorrago bat eginez, adierazi du herritarrek fase guztietan hartu behar dutela parte eta ez soilik esparru honetan, "*baizik eta udalerrian ezartzen diren politika guztiak zehazterakoan*". Gogoeta hori bere esparrutik (udalak) egin du, baina uste du bertaratutako gainerako erakunde publikoek, gutxiago edo gehiago, bat egiten dutela Eudelek emandako arrazoibide horrekin. Gizarte-zerbitzuetako politikak erabiltzaileei zuzenduak daude, eta gerta daiteke, zenbait kasutan, hirugarren sektoreko erakundeen interesak bat etortzea. Eudelen ustez, bultzatu egin behar da hirugarren sektorean dauden erakundeen parte-hartzea, baina "exijitzeak" gainditu egiten du tokiko autonomiaren esparrua, beren ustez errespetatu beharrekoa. "*Eta exijitzen badugu hirugarren sektorean, zergatik ez gauza bera egin edozein politika ezartzerakoan? Eztabaida hori, ordea, askoz zabalagoa da*". Gogoeta orokor hori dago alegazio horren oinarrian, eta ez dago inolako asmorik partaidetza-prozesuen aurka egiteko.



- **Igor Navarro** jaunak adierazi du ulertzen dutela udalerrien autonomia-printzipioa eta ez dutela, inoiz, ez errespetatzeko konturik aipatu. Alderantziz, herritarren eta gizarteko taldeen parte-hartzea udalerrien autonomiaren elementuetako bat da eta beharrezkoa da haien barnean parte-hartze hori izatea. Ikuspegi horretatik, herritarren parte-hartzeak ez luke autonomia hori murrizteko; aitzitik, bultzatu egingo luke.

Alde horretatik, ez dator bat EUDELeko ordezkariak azaldutako azken arrazoiarekin, hirugarren sektoreak beste sektore edo politika batzuetan parte hartzeko edo ez hartzeko exijentziari buruz adierazitakoarekin: *“Zentzugabea da zenbait talderen jardunean eta autonomian eragina izango duten politikak ezartzea eta talde horiek udalerrietako parte-hartze prozesuetatik kanpo uztea”* zergatik eta *“interesak bat etor daitezkeelako”*; bidenabar, azken horren esanahia ez duela oso ondo ulertzen gaineratu du. Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren izaera eta egitekoa aintzat harturik helarazi du gogoeta Navarrok, GZEKn gizarte-erakundeek parte hartzen dutelako eta, hain zuzen, erakundeak eginkizun hori duelako: gizarte-erakundeek politika sozialean parte hartzeko bidea erraztea, bultzatzea eta bermatzea, eta ez parte-hartze horri betoa jartzea edo mugatzea. Horrela izan beharko luke udalerrien esparruan ere, Navarroken esanetan.

- **Pablo Gonzalez** jaunak uste du ez dagoela itzulginguru gehiago eman beharrik adierazitako iritziei, eta bere iritziz, gainera, *“ez dira elkarren kontrakoak”*, jardun jakin baten adierazpideak baizik. *“Gure ikuspegitik, egia da konpromiso zehatzagoa nahiko genukeela 'prozesuan', ez noski erabakiak hartzerakoan, horretarako baitaude organoak, baina, era berean, ulertzen dut azaldu duzuna”* (Ibon Uribe esandakoaren harira).

- **Ibon Uribe** jaunak maila operatiboko adibide batekin itxi du eztabaida. *“Jo dezagun 200 biztanleko udalerririk, beharbada herrian hirugarren sektoreko antolakunderik izan gabe, gizarte-zerbitzuetako politika bat jarri nahi duela martxan, eta, gutxienez, izanda ere, fase guztietan partaidetza exijitzen diogula. Horrelako zalantzak sortzen zaizkigu”*. Eta argi utzi du ez duela, inolaz ere, *“betoa jartzea”* aipatu (Elkartean erakundeak ordezkariak adierazitakoa gogora ekarrita).

- **Txema Odriozola** jaunak adierazi du EAEko ia udalerririk guztietan (251 guztira, eta Bizkaian, 112) gizarte-erakundeak daudela. *“Bizkaian soilik, adineko pertsonen 150 antolakunde daude. Horrek esan nahi du ia udalerririk guztietan daudela eragileak (gizarte-erakundeak) parte-hartzea izateko”*.

- **M^a José Cano** andreak adierazi du FEDEAFESek berretsi eta babestu egiten duela gizarte-erakundeek (Pablo, Manu, Txema...) esandakoa, eta, jakina, bat egiten duela haien ikuspegiarekin.

- **Kontseiluko jarduneko presidentek** amaitutzat eman du puntu hori, eta adierazi du GZEK-ko idazkariak txosten bat egingo duela, eta kide guztiei eta osoko bilkurara bertaratutako beste pertsonen iritzirik diela. *“Inork inolako oharrik egin nahi izanez gero, jakinarazi dezala, eta bestela, aurrera jarraituko dugu Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko Lege-proiektuaren prozedurarekin eta izapidetzearekin”*. (Gogorarazi du hainbat organok egiteko dituztela bilerak eta haiek ere txostenak egin ditzaketela. Beraz, aukera dago oraindik ere ekarpen gehiago jasotzeko).

3. puntua.- Gizarte Zerbitzuen Zorroari eta Plan Estrategikoari buruzko Dekretuaren egoera.

- **Iñigo Pombo** jaunaren iritziz, gai hori ixtear da, ekainaren 26ko erakunde-arte lan-bileran hitz egindakoaren arabera. Administrazioek erabaki zuten dekretuari amaiera ematea eta, ahal den neurrian, hauteskunde-prozesuetatik urruntzea, prozesu horiek erabakiak hartzeko unean eragina izan dezaketelakoan. Hainbat bilera tekniko egin ziren gainerako erakundeekin eta, azkenean, Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoak, uztailearen 9ko saioan, Zorroari buruzko Dekretuaren testu bat onartu zuen. *“Oso dokumentu landua da, ahalegin handia egin dugu adosteko, eta ez dugu berriro ireki nahi”*.

Testuan, 2011ko abenduaren 31n eginiko aurreikuspen ekonomikoak jasotzen dira. Orduko hartan, inbentarioa, kostuaren estimazioak, ohiko gastu publikoa, etab. zehaztu ziren, baina orain, adostu egin behar da zenbateko kostua izango duen indarrean sartzerakoan, 2017ko urtarrilaren 1ean. Gogoratu du 12/2008 Legea memoria ekonomikorik gabe sortu zela eta garai ekonomiko gogor hauetan, erakundeek bi aldiz pentsatzen dutela legearen xede diren pertsonen eskubide subjektiboak aitortu ala ez. *“Aurrekoa gorabehera, erakundeek lorpen sozialtzat hartu behar dugu (Gizarte Zerbitzuak eskubide subjektibotzat jotzea) eta ezin dugu alferrik galtzen utzi. Horretan gaude”*.

Jauralaritzak egindako plangintzari jarraituz, aldian-aldian eta maiz samar bilerak egin dira hiru Diputazioekin eta EUDELekin, "guztion adostasuna izango duten" programazio batzuk eta zifra batzuk lortzeko, eta horien bidez, 2017eko urtarrilean prozesu honi behar besteko bermearekin aurre egiteko.

Zorroari buruzko Dekretuaren onartutako testuak osotasun bat eratzen du elkarrekin estu lotuta dauden beste hiru elementurekin; Plan Estrategikoarekin, Maparekin eta Memoria Ekonomikoarekin, hain zuzen. Hori dela eta, erakundeen asmoa da Zorroari buruzko Dekretua azaroa bukatu baino lehen onartzea. Gainerakoan, denboraz larri ibiliko gara eta geure buruari galdetu beharko diogu zergatik ez dugun lortu halako aukera garrantzitsua ixtea; izan ere, lehendik dauden zerbitzu batzuk eskubide bihurtzea lorpen handia da.

Azalpen horren bidez, Zorroari buruzko Dekretua zertan den jakinarazi nahi izan die sailburuordeak GZEK-ko kideei (aurrez bidali zitzaien dekretuaren testua, ahalik eta ekarpen gehien jaso ondoren hezurmamitutakoa), eta, azalpen horien ondotik, hitza eman die batzordekideei.

- **Igor Navarro**, ELKARTEAN erakundeko ordezkariak, kezka handiz ikusten du orain arteko zirriborro guztietan, *Bizitza independentea babesteko zerbitzuaren* barnean (2.7.2.1), *Laguntza Pertsonalerako Programa* agertzen zela, baina azken testuan, aldiz, ez. Ordezkatzen duen erakundearentzat programa hori garrantzitsuenetako bat da, eta oinarritzkoa da berau aintzat hartzea, bere kolektiboaren bizi-baldintzak, ongizatea eta autonomia hobetzeko aukera ematen duelako. *“Inolako informaziorik eta jakinarazpenik gabe, ezabatu egin dute Laguntza Pertsonaleko Programa hori Zorroari buruzko Dekretutik”*. Adierazi du programa hori desagertzea oso dramatiko dela, hori baita dibertsitate funtzionala duten pertsonen autonomiaren eta bizitza independentearen alde lan egiten duten erakunde guztien agendan oinarri-oinarritzko gaur egungo politiketako bat. Eskatu du azaltzeko zergatik hartu den erabaki hori, eta, areago, eskatu du, batez ere, programa hori berriro jasotzeko Zorroari buruzko Dekretuan.

- **Gizarte Politiketako sailburuordeak** erantzun dio eutsi egiten zaiola laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoari (3.1.1.)

- **Igor Navarro** jaunaren iritziz, ez da nahikoa 3.1.1. puntuan jasotakoa eta eskatzen duena da Laguntza Pertsonalerako Programa aintzat hartzea; hau da, prestazio ekonomikoa ez ezik programan zehazten diren fase guztiak: informazioa jendaurrean jartzea, jarraipenaren balorazioa egitea, laguntza pertsonalerako jendea kontratatzeke gestioetan laguntza ematea eta laguntza ekonomikoak. Ordezkatzen duen erakundeak programa bera bermatzea nahi du, horren bidez diru-laguntza ekonomikoak emateko. Zenbait pertsonak behar duelako kontratatzeke babes eta laguntza hori, zerbitzu horiek eskuratu ahal izateko. Gainera, modu horretara jarduna gardenagoa da Administrazioarentzat berarentzat.

- **Gizarte Politiketako sailburuordeak** adierazi du laguntza pertsonalerako prestazioa gai garrantzitsua dela, eta luze-zabal aztertu dela. Eta bai, adierazi du, kontua ez da pertsona bati dirua ematea, eta gero *“hor konpon”*. Kontua da *“Dekretua “bizirik” dagoela eta ezin dugu eskubidetzat onartu oraindik existitzen ez dena; izan ere, Bizitza independentea babesteko zerbitzua sortu gabe dago oraindik –nahiz eta badagoen horretarako borondatea– eta ez dago ezarrita EAEko hiru lurraldeetan”* (Gipuzkoan bai, badago).

- **Emilio Sola** jaunak, Saileko aholkulariak, argitu du, aurrez, bi modalitate zeudela fitxan: batetik, *Bizitza Independentea babesteko programa* (mantendu egin da, eta, nolabait, hor jasotzen da ELKARTEAN erakundeko ordezkariak eskatzen duen laguntza); eta bestetik, *Laguntza Pertsonalerako Programa*, ordezkariak azaldu duen moduan, soilik Gipuzkoan dagoena. *“Gainerako Diputazioek eskatu ziguten ondo iruditzen zaiela Gipuzkoan egotea, baina ez ditzagula besteak behartu programa hori izatera; izan ere, beste modalitatea hori dute jada fitxan. Horretan dago kontua”.*

- **Gizarte Politiketako sailburuordeak**, Zorroari buruzko Dekretua izapidetzeko legeko epeen gainean CONFEBASKen ordezkariak eginiko galderari erantzunez, jakinarazi du legean ezarrita daudela epe horiek, eta, horien ondorioz, izapidetze-prozesua luzea dela. Laburbilduz, kontseilu batzuek eta besteek beren txostena eman ondoren, *Gizarte Zerbitzuetako Lanbide Arteko Organoa* osatzen duten pertsona guztiek ere aldeko txostena eman behar dute. Horren ondoren, Kontrol Ekonomikoko Bulegora jo behar da –hilabete– eta, jarraian, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikora –2 hilabete–. Zaila da organo horietan guztietan dekretua izapidetzeko zenbat denbora beharko den kalkulatzeko, baina Zerbitzuetako Lanbide Arteko Organoak onartuko balu, sailburuordeak uste du garaz beteko litzatekeela erabat indarrean ezartzeko legeak finkatzen duen epea (2016ko amaiera).

4. puntua.- Gizarte Zerbitzuei buruzko Urteko Txostena egiteko beste eredu baten proposamena.

- **GZEK-ko jarduneko presidentek** gogoratu du orain arte Euskadiko G.Z.-en egoerari buruzko txostenak datu asko jasotzen zituela, eta txostenaren gabezia nagusia horixe zela, hain zuzen, datuak aspaldikoak zirela eta ez zeudela eguneratuta. Gainera, 2010ean Gizarte Zerbitzuetako hainbat teknikariri (400 inguru guztira) galdegegi bat bidali zitzaizen osatzeko, eta jaso ziren 70 bat erantzunetatik ateratako informazioa ere txostenean jaso zen.

Sailak uste du G.Z.-etako txosten osoa beste era batera planteatu beharko litzatekeela, eta, martxan jarri aurretik, arauzko prozedurari jarraituz, horren berri eman dio Aholku Batzorde honi. Beste eredu bat planteatu du:

-Datuen bilketa: 2012. urtera aurreratuko da (hala, urte bat edo bi aurreratuko dira), eta Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organoa arduratuko da zeregin horretaz. Jada eginak dauden bi inkestak dira datuak biltzeko iturriak: Gizarte Zerbitzuei buruzkoa eta Gastu Publikoari buruzkoa.

-Adituen Panela: 400 pertsona "adituri" eginiko kontsultaren ordeztu, adituen talde murriztago bat gonbidatuko da. Adituak itzal eta ibilbide handikoak izango dira, eta Gizarte Zerbitzuen arloko gai jakin bati buruz idazteko eskatuko zaie, ekarpen horiek urteko txostenean jasotzeko. GZEK plurala da eta adituen taldearen osaera ere plurala izango da, euskal herritarrek Gizarte Zerbitzuei buruz izan ditzaketan ikuspegi desberdinak jaso ahal izateko. Hauek dira aditu horiek:

- Ignacio Zubiri, EHUKoa.
- Xabier Aierdi, EHUKoa eta gaur egun Sailaren aholkularia.
- Joseba Zalakain, SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroko kidea.
- Félix Arrieta, Deustuko Unibertsitatekoa.
- Enekoitz Etxezarreta, EHUKoa.
- Txema Duque, Bilboko Udalekoa.
- Maite Sancho, INGEMA-MATIAKoa.
- Helena Sotelo, SIIS Zentrokoa.
- Karmele Acedo, Servicios Sociales Integrados erakundeko kidea.
- Fernando Fantova, aholkulari independentea.
- Pedro Beitia, EDE Fundaziokoa.
- Ana Alberdi, EMAKUNDEkoa.
- Fernando Consuegra, SARTUKoa.
- Lourdes Zurbanobeaskoetxea, BFAkoa eta E.J.ko arlo soziosanitarioko koordinatzailea.

- Gorka Moreno, IKUSPEGI Behatokikoa eta EHUKoa.
- Elena Martín Zurimendi, Arabako Foru Aldundikoa.
- Maria Jesús Goikoetxea, Deustuko Unibertsitatekoa.
- Ainhoa Berasaluze, EHUKoa.
- Raquel Sanz, SIIS Zentrokoa.
- Arantza Mendieta, SIIS Zentrokoa.
- Pablo Gonzalez, FEVASekoa.
- Manuel Moreno, EAPNkoa.
- (... oraindik zehazteko beste pertsonaren bat)

Aditu bakoitzak bere jakintzaren esparruarekin edo kudeatzen duen arloarekin loturiko artikulua bat idatziko du. Hala, urtea amaitu baino lehen, Gizarte Zerbitzuen egoerari buruzko urteko txostena GZEKaren osoko bilkurara ekartzen denean, helburua da 2012ko datuak eta adituen artikulua jasota egotea, bi elementu horiekin Euskadiko G.Z.-ei buruzko "txosten serioa" osatzeko.

- **Txema Odrizola** adierazi du azken 4 edo 5 urteotan, txostenak, EUSTATen datuetan oinarriturik, eta adineko pertsonen dagokienean, egoitzei loturiko gaia baino ez duela aztertzen. Bere egunean eskatu zuten adineko pertsonen egoerari buruzko txosten zehatz moduko bat egiteko (hortik sortu zen *100 Proposamenen* dokumentua) eta EAEko G.Z.-en egoerari buruzko urteko txostenaren txertatzea. Aipatu du Osasun Sailak jardunaren zati handi bat egoera "kronikoak" eta kalteberak aztertzea bideratzen duela, eta egoera horiek batez ere adinekoen kolektiboari eragiten diotela. Hori dela eta, gai hori datu-basean jasotzea nahi du, txostenaren "eredu berrian" ager dadin.

- **Gizarte Politiketako sailburuordeak** aditzera eman du G.Z.-ei buruzko txostena ez dela informazio-iturri bakarra euskal herritarrei eragiten dieten arazoaren berri jakiteko, eta, alde horretatik, asmoa dela G.Z.-ei buruzko legeak zerbitzu horien erabiltzailetzat jotzen dituen kolektiboari bideratzea Gizarte Zerbitzuak eta haiei buruzko txostena (legeak zeharka jorratzen du prebentzioaren helburua, eta batez ere atentzioa hartzen du ardatz). Hori dela eta, herritarren zahartzea gai garrantzitsua izanik, "eta arazoa baino gehiago lorpen soziala" dela kontuan hartuta, auzitan jartzen du gai hori jorratzeko lekuri egokiena txostena ote den, baina, nolana ere, planteatuko duela adierazi du.

Gogoratu du, gainera, gairen garrantziaren adierazle, *Zahartze Aktiborako Plana* lantzen ari direla; eta Osasun Sailarekin elkarlanean zahartze aktiboa eta osasuntsua sustatzeko gida bat egin dutela; eta hor dela *Euskadi Lagunkoia Proiektua* ere...

- **Natalia Díez-Caballero** andreak, HIRUKIDE elkartearen ordezkariak, eskatu du familien egoerari buruzko datuak txostenaren jasotzeko, egoera ahulenean dauden familia motak zein diren argi gera dadin, eta, ondoren, datu eta informazio horiek *Familiaren Euskal Kontseilura* estrapolatzeko aukera izan dadin (Caritasen txosten baten arabera, Espainian krisiaren ondorioz kalte gehien jasan duten familiak guraso bakarrekoak eta familia ugariak izan dira).

- **Iñigo Pombo** jaunak datuen dekalajea edo atzerapena aipatu du, 2012koak izango baitira, eta, horrenbestez, gaur egungoak ez dira islatuta geratuko. Baina, horrez gainera, badira argitaratutako beste azterlan batzuk, hala nola Pobreziari eta Desoreka Sozialei buruzko 2012ko Inkesta, eta horietan gai hori garbiago antzematen da.

- **Inmaculada Mujika Flores** andreak, ALDARTE erakundeko ordezkariak, Gay, lesbiana eta transexualen Euskadiko erakunde guztien izenean, txostenak izaera edo joera heterosexistegia ez izateko nahia adierazi du. Hala, alderdi hori zaintzeko eta sexu, genero eta bestelako aniztasunaren barnean maila horretan dagoen dibertsitatea islatzeko eskatu du, "oso erraza baita denok *heterosexualak garelako uste unibertsalean jaustea*". Alde horretatik, esparru horretan dagoen babesgabeziari, bazterketari, kalteberatasunari eta desorekari buruz gehiago ikertzea gustatuko litzaiokeela adierazi du Mujikak.



- **Iñigo Pombo** jaunak, FEDERPEN, HIRUKIDE eta ALDARTE elkarten azken hiru esku-hartze eta eskakizunen harira, adierazi du txostena Kontseilu honena dela eta ahalegina egingo dela batzordekideek komenigarritzat jotzen duten oro bertan jasotzeko.

Hala ere, kontuan izan behar da oinarrian dagoen informazioak zenbait muga dituela, eta, alde horretatik, kontsulta egin beharko zaio txostena egiten duenari eta/edo EUSTATI. Txostenak "2 iturri ditu": ESSEC delakoa (Gizarte Zerbitzuei, Erakundeei eta Zentroeiei buruzko Inkesta), eta Gastu Publikoari buruzko inkesta, biak EUSTATENak. Gai horiek inkesta horietan sartzen badira, ez dago arazorik txostenean jasotzeko; eta, horrela ez bada, datorren urterako pentsatu beharko da beste informazio-iturri batzuk kontuan hartzea, gai horiek jasotzeko, garrantzitsuak baitira.

5. puntua.- Galde-eskeak.

- **Manu Moreno** jaunak, Pobreziaren eta Bazterketaren aurkako Borroka Sarearen eskaera bat egin nahi du, EAPN Euskadi elkartearen izenean. Urriaren 17an, ostiralez, *Pobrezia errotik desagerrarazteko Nazioarteko Eguna* egin zen. Urtero egiten da egun hori mundu osoan. Ekitaldi horri begira, Sareak *Adierazpen* bat landu du, eta hauek dira 3 ideia nagusiak:

- Gure gizartean pobrezia eta bazterketa errotik desagerrarazteko premia gogoratzea.
- Administrazioei, talde politikoei eta gainerako gizarte-eragileei eskatzea bakoitzak bere esparrutik pobrezia errotik desagerrarazteko ahalegina egin dezala.
- EAEko Gizarte Babeseko Sistema defendatzea: *Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Sistema*.

Eskatu du Adierazpena aktan jasotzeko eta/edo Kontseiluan parte hartzen duten pertsonen banatzeko.

EAPNeko ordezkariak eginiko eskaera aintzat hartuta, Kontseiluak ontzat eman du Adierazpena partaide guztiei zabaltzea eta Akta honetan eranskin moduan jasotzea (**2. ERANSKINA**).

Ez da beste galderarik eta eskaerarik izan, eta, horrenbestez, jarduneko presidentek bertaratuei eskerrak eman ondoren, amaitutzat eman du osoko bilkura, 2014ko urriaren 22ko 13:15ean.

IDAZKARIA

ONIRITZIA
Jarduneko PRESIDENTEA